

Tolosako ihauterien berri

Gutxi dakigu gure arbasoek aspaldiko garaietan ospatzen zituzten ihauterien inguruan. Neguko festa handi hau, jatorri ezezagunekoa, herritik sortutakoa da, baina ez zuen oihartzunik agintarien artean orain oso gutxi arte. Ez dakigu ez nolakoak ez zer ziren ihauteri haiek; baina izan badira ezustean iritsitako aipamen jakin batzuk, eta horiek esker badakigu ihauteriak ez zirela oharkabean pasatzen urteko festen artean. Ene ustez, esandakoan erreparatu izanak egiten du ekarpenik, eta ekarpenak interesatutako gaiaren ikerketa aberastea esan nahi du, oraingoa oso modu apalean bada ere. Gatozen, aintzinsolas labor honen ondoren, gaiari heltzea.

Harrigarria eta bitxia egin zitzaidan 1591 Ihauteria aipatzeko izan zuten arrazoiak, urte bereko Gipuzkoako Junta eta Diputazioetan ihaute festak aipatu baitzituzten derrigorrezko armen ikusketa zela medio, gehienetan, festa jakin batzuetan eta herriko festetan egiten zen ikusketa izanik.

Lehena, probintzia honetako herri, alkatetza eta toki bakoitzeko herritarrek –hala dio erabaki instituzionalak– armen ariketak egin ditzaten, *“el domingo de carnestolendas del año noventa y dos (1592), a la una hora después del mediodía.”*

Herri eta tokietako alkateek jakin bezate herritarrak gerrarako prest dauden, euren alkabuz, pika eta munizioaz. Eta prest ez daudenak indar osoz behar ditzaten hemendik ihaute igandea bitartean arma eta munizioz hornitzera, aipatu armen erakusketa eta ariketa egin ahal izateko.

Tolosako herriak erabaki zuen agindu hori herriaren usuario eta ohituraren legez betetzea bere auzoekin; horretarako, armen erakustaldia eta ariketa egin behar zuten guztietan, herrira etorri behar zuten, *“debajo de su bandera”* jartzera.

Oharpen hau zabaldu egin zuten 1592an: *“para que el domingo de carnestolendas y lunes y martes lo cumplan”*.

Urte berean, Tolosako Francisco Munitak jasotako gutunean, Martin de Atodo fidatzaile gisa agertzen den gutun berean, Ihauteria aipatzen du zera diotenean: *“obligamos a pagar once ducados y medio, la mitad de ellos para el día de nuestra Señora de Agosto, y la otra mitad para el domingo de carnestolendas”*.

XVII. mendearen hasieran –1608. urtean hain zuzen ere– abadegotzaren obligazio eskritura batean, Ihauteria erreferentzi data gisa erabilia dago. Beste horrenbeste esan dezakegu zazpi urte beranduago gure herrian datutako kontratua aztertzerakoan; kontratuan jasota dago aurreneko hirurogei dukatak eman beharko dituztela *“para el día domingo de carnestolendas”*.

XVIII. mendera jauzi egingo dugu, nahiz eta hasierako urteak ez izan aproposak ihauterietako izpiritua kanporatzeko. P. Jose Ignacio Lasa adiskidea zenak 1972an argitaratutako lan bati esker jakin nuen 1702ko Ihaute egunean –otsailaren 26an– uholde batek ordu garratzak pasarazi zizkiela tolosarrei.


Gure herria haragiaz hornitzeko eskritura bat, 1790eko datatz, interesgarria da ematen dituen xehetasun guztiengatik; tarte zabalagorik ezean, Ihauterierekin eta festarekin zerikusia duen pasartea jasoko dugu:

“Que el proveedor tenga la obligación sin pretensión a abono alguno, si así se le ordenase por el Ayuntamiento o Regidor Semanero de traer para correr los días últimos del Carnaval, y del Año Nuevo, tres bueyes que sean de prueba y desempeño para la diversión acostumbrada del público, y que ninguno de estos bueyes se puedan vender en la tabla, a lo menos hasta pasados veinte días desde que fueron corridos.

Que dicho rematante haya de tener a su costa durante dicha provisión maroma buena y suficiente para correr bueyes todas las veces que quisiesen los señores del Gobierno.

Que haya de dar y soltar dicha maroma a las cuatro Cofradías y Hermandades de esta Villa, para correr según costumbre bueyes (...), pagándose por las Cofradías seis reales de vellón por día (...)”.

Agiri honetan kofradiak eta ermandadeak agertu dira: hor dugu sarbidea bizitza korporatiborako, gremio bizitzarako, berebiziko garrantzia izan duena gure herriko lan munduan eta festa iraganean; horren aztarnak iritsi zaizkigu gaurdaino Aroztegieta eta Errementari kale izenen bidez.



Tolosako Ihauterien berri / Juan Garmendia
Larrañaga. - En: *Tolosa Iñauteriak, otsailaren 6-7-8-9-10 eta 11. 1997.* - Tolosa: Tolosako Udala, 1997. - [20] p. : il. ; 28 cm. - P. [3]. - OC. T. 3, p. 695-696